



unesco etxea **txostena**

2	Aurkibidea
3	Agurrak
4	Nor gara?
8	2007ko ekintzak
11	Web orria eta argitalpenak
12	2007ko Ekitaldi garrantzitsuenak
14	Datu ekonomikoak
16	Eskerrak



Erredakzio eta grafikoak:
UNESCO Etxeko lan-taldea.
Diseinua eta maketazioa:
SRB, S.L.
Edizioa: 2008ko ekaina
Editatzen du: UNESCO Etxeak

UNESCO ETXEA
Urkixo Zumardia 60, nag. esk.
48011 BILBO
Tel.: 94 427 64 32
Faxa: 94 427 25 48
info@unescoeh.org
www.unescoeh.org

Klororik gabe zurituriko %100 paper birziklatuan eta birziklagarrian inprimatua.

Bere erabilerarekin argitalpen honetan honakoa aurreztu da:
3,3 zuhaitz 1.660 litro ur 1.422 Kilobatio/orduko 347 CO₂ kilo



Hala ere, liburu honen argitarapenerako erabilitako paper kontsumoak eta banaketa lanak derrigorrez sortzen duten berotegi efektuko gasen isurpenak (435 CO₂ kilo, zehazki) aldaketa klimatikoaren aurkako Ekopass elkartearen bitartez konpentsatuko dira, Green Belt Movement erakundeak baso-berritze, garapen eta generoaren alorretan Kenyan garatzen dituen proiektuen bidez.



Green Belt Movement erakundeak Wangari Maathai Nobel Sariduna du buru. Wangari garapen iraunkorra, demokrazia eta bakearen alde egindako lanagatik ezaguna da mundu osoan.

Green Belt (Gerriko berdea) Mugimenduak 20 milioi zuhaitz baino gehiago landatu du Afrikako baso-soiltze eta basamortutzea ekiditeko, aldi berean aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan lagunduz.



RUPER ORMAZA PRESIDENTEA

2007ko memoria honetan egiaztatu ahal izango duzuen moduan, instituzio gisa hobetu eta hazi egin garela esan dezakegu poztasunez. Izan ere, herrialde- eta mundu-mailan edukiak landu eta aurkeztu ditugun, nazioarteko harremanen kalitatea garatu dugu, profesional berriak hasi dira lanean, eta dokumentu eta argitalpenak egin ditugu.

Gure Ikuskera, Helburu eta Balioei buruzko hausnarketa eta eguneraketa ere egin dugu, eta 2008-2010 Plan Estrategiko berria onartu.

Hobetzen jarraituko dugu. 2007an 17 bazkide berri etorri dira. Lerro hauen bitartez harrera beroa eman nahi diegu haiei. Bazkideak UNESCO ETXEAn funtsezko osagaiak dira, gure ustez 'erakunde sendoa' garelako, 'oinarri sozial zabala eta plurala duena'. Bazkide berriak erakartzeko sustapen- eta sartzeko-prozesuak hobetu eta berritzera goaz, kolaboratzaile gehiago lortzeko,

pluralagoak, gure gizartea hobeto ordezkatzeko dutenak.

Babesleen kudeaketa ere hobetzera goaz. UNESCO ETXEAn ondo egiten dugu gure lana, mesedegarriak gara herrialdearentzat eta munduarentzat. Horrela sinesten dugu tinko, eta trukean, neurriko babes ekonomiko eta soziala espero dugu.

Iturri askotako finantzaketa lortu nahi dugu, herrialde- eta mundu-mailako botereekiko autonomoak eta kritikoak izateko, eta bide batez, gure gizarteak duen aniztasuna modu egokiagoan ordezkatzeko.

Gure lan- eta antolakuntza-azpiegiturak hobetzera goaz, gure barne antolamendua nazioarte-mailako erronken neurrikoa izan dadin. Dagoeneko erronka horien inguruko ekarpenak egiten ari gara gaikako edukietan eta berrikuntza intelektualaren alorrean.

MIKEL MANCISIDOR ZUZENDARIA

Memoria honek 2007an gure Misioa burutzeko egin duguna eta izan garena biltzen du: nazioarteko hainbat esparrutan lan egitea ekintza eta irizpide propioekin, giza garapen iraunkorraren, giza eskubideen eta bake-kulturaren alde.

Horretarako, aliantza estuak egin ditugu nazioarteko zenbait eragile garrantzitsurekin, helburu argi eta komun bidez; gure prestakuntza tekniko eta ekarpen positiboak egiteko gogoia sakondu dugu; gure edukiak eta aurkezteko moduak berrikusi ditugu, atzean geldituko ez garela ziurtatzeko; eta geure buruari egunero pixka bat gehiago exijitzen saiatzen gara.

Aurten bi alor garrantzitsutan egin dugu lan: bata Bake Kulturari buruzkoa (lehenagoko gai bati helduz, baina eduki eta helburu berriak ezarriz) eta bestea Ura izateko Giza Eskubideari buruzkoa (etorkizun handiko kontu batean bete-betean sartuz). Hezkuntza programak, KOOPERA programa (prestakuntza eta informazioa) eta Dokumentazio Zentroa eremu berri zabal batean integratu ditugu,

gure gizartearentzako zerbitzu zuzenak erabilgarriagoak eta eskuratzeko errazagoak izan daitezten.

Hala ere, nazioarteko arlo horietan gero eta ekarpen gehiago egiteko lan asko dugu aurretik; honenbestez, programak, eztabaidak eta kezka berritzaile aberasgarriak herrialdera ekartzen saiatuko gara eta gure herritik ardura, ideia eta ahalegin positibo eta konstruktiboak mundura zabaltzen.

Gure web-orrian ikus dezakezuen 2008-2010 Plan Estrategikoak erronka horiek zehaztasunez ezartzen dizkigu eta haien aurrean neurtzen gaitu. Gainera, aipatutakoa lortzeko hobeto antolatzen lagundu behar liguke.

Hori guztia egiteko, gero eta trebatuagoa den talde profesional bat dugu, zaindu eta handitu egin behar duguna; horrez gain luxu ederra diren aliantzak ditugu, eta bazkide-multzo bat, gero eta handiagoa eta guztion proiektu honetan interesatuagoa izatea nahi duguna.




→ UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea (GGKE) da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduerak

ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura Publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 111 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXEA ORGANIGRAMA



Gainera, Eusko Jaurlaritzarekin kolaborazioan:

15 Bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan. **2** Kontsultore Pariseko UNESCOn. Kontsultore **1** ONU-Agua bulegoan, Zaragozan. Kontsultore **1** OHCHRan, Ginebran.



Misioa, ikuspegia eta balioak**MISIOA**

UNESCO Etxea nazioarteko bokazioa duen Gobernu Kanpoko Euskal Erakundea da. Bake-kultura, giza garapen jasagarria eta tokian tokiko eta mundu osoko giza eskubideak egi bihur daitezzen egiten du lan. Horretarako,

- Nazioarteko prozesu eta ekimenetan aktiboki hartzen du parte;
- Euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen arteko erlazio eraldatzailea sustatzen du (batez ere UNESCO eta NBE); eta
- Iritzi eta irizpide propioak ematen ditu, ikerkuntza, eragina, prestakuntza, berrikuntza eta dibulgazioaren bitartez.

IKUSPEGIA

UNESCO Etxea erakunde sendoa, ospetsua eta independentea da, errekonozimendua du, eta kalitate-irizpidez jarduten du. Erakundearen bazkide eta lagunen taldea zabala eta plurala da. UNESCO Etxearen zuzendaritza-batzordea aktiboa da, eta erakundearen lantalde profesionala, berriz, goimailakoa, kohesioduna eta sendotua. Misioa betetzeko orduan gizartearen lortu duen dimentsioa, garrantzia, proiektzioa eta baliagarritasuna ikusita, UNESCO Etxea erreferentzia dugu EAEn. UNESCO Etxeak nazioarteko maila gorenean egiten du lan bere espezializazio esparruetan eta modu eraginkorrean hartzen du parte munduan erreferentzia eta eragile diren sare eta jokalekuetan.

BALIOAK

Honela dio UNESCOren Konstituzioaren hitzaurreak: «gerrak gizakien buruan sortzen direnez, gizakien buruan eraiki behar dira bakerako oinarriak». UNESCO Etxea bake justua eta duina eraikitzearen aldekoa da, pertsona oinarri hartuta, hezkuntzaren, zientziaren, kulturaren eta informazioaren bitartez. Horretarako, oinarriko askatasunak eta aniztasuna errespetatzea defendatzen du, arraza, sexua, sexu-joera, hizkuntza edo erlijioagatiko bereizketarik egin gabe. UNESCO Etxeak bere egiten ditu Nazio Batuen berariazko balioak: giza eskubideak, demokrazia, tolerantzia, justizia eta askatasuna errespetatzea eta sustatzea. UNESCO Etxearentzako balio horiek behar-beharrezkoak dira gure herrialdearen errealitatean, eta aurrera eramateko konpromisoa hartzen du. Eguneroko lanean UNESCO Etxeak bere egiten ditu balio hauek: berrikuntza, sormena, kalitatea, efikazia eta eraginkortasuna, pertsonaren garapen integrala (bere lantaldeko jendearena, lehendabizi, jakina), herrialdearen etorkizunarekiko ardura eta inguruko eta mundu zabaleko gizartea zerbitzatzeko borondatea.

SAREAK ETA ALIANTZAK**UNESCOrekin eta Nazio Batuekin elkar hartuta...**

«Gure garaiko gertaera garrantzitsuenetako bat gizarte zibilak boterea handitu izana da. Munduko gobernantza ez dago, dagoeneko, gobernuen esku bakarrik. Estatukoak ez diren eragileen parte-hartzeak eta eraginak demokrazia indartzen dute, eta multilateralismoaren definizio berria sortzen. Are gehiago, ekimen berritzaileen ere gizarte zibileko erakundeak hartzen dituzte».

Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saila. 2008.

UNESCO Etxeak Euskal Herriaren eta nazioarteko erakunde nagusien arteko lotura sendoa ezartzen du, horretarako bi tresna garrantzitsu erabiliz: UNESCOrekin Harreman Ofizialen Estatusa, eta Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko

Aholkularitza Estatusa (ECOSOC). Horrez gain, UNESCO Etxea Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kide da. Bestetik, haren Dokumentazio Zentroa UNESCOrekin Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL) kide da.

Hezkuntza, ingurumena, kultura eta giza eskubideekin lotutako UNESCOren hainbat programatan hartzen dugu parte. Modu estuan egiten dugu lan UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordearekin (Comisión Española de Cooperación con la UNESCO), Kanpo Harremanetarako eta Lankidetzarako Ministerioaren menpeko erakundea.

Nazio Batuen Milurteko Kanpainarekin kolaboratzen dugu, Milurtekoaren Helburuak bete daitezzen, eta Nazio Batuen Europako Eskualde Bulegoarekin (UNRIC) ere bai. Lan-harreman egonkorrak ditugu Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkar Nagusiaren Bulegoarekin (OHCHR), ONUSIDArekin, eta Garapenerako Nazio Batuen Programarekin (PNUD).

...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

UNESCO Etxea Espainiar Estatuko UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Konfederazioaren baitan dago eta UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Munduko Federazioaren (FMACU) kide da.

Espainiako Nazio Batuetarako Elkartearekin (ANUE) dugun hitzarmenari esker, UNESCO Etxea Nazio Batuetako Elkarteen Munduko Federazioaren (WFUNA) erreferentea da EAEn,

CONGOKo kide gara (Nazio Batuen aurrean Estatus Aholku-emailea duten GGKE-en Konferentzia), eta honen urteroko batzarretan parte hartzen dugu. UBUNTU-Gizarte Zibileko Sareen Munduko Foroaren erreferentea gara Euskadin. Nazioarteko Erakundeak Sakon Berritzeko Mundu mailako Kanpainaren Euskal Komitearen zuzendariak gara.



UNESCO Etxeko lan-taldea, Zuzendaritza-Kontseilua eta Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordea.

Bilbo, 2007ko Irailaren 21ean.

Ikusi: Bake Kulturari eta Giza Eskubideei buruzko Euskal Herriko Adierazpena

www.unescoeh.org/dokumentuak/adierazpena_2007.pdf

UNESCO Etxeak hainbat erakunderekin sinatu ditu elkarlanerako hitzarmenak:

UNESCOCat (Centre UNESCO de Catalunya), LINGUAPAX Institutua, Munduko Landagunea, Pax Romana - MIC, Cultura de Paz Fundazioa eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen Garapenerako eta Aplikaziorako Espainiako Elkarte (AEDIDH).

...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean

EJWI - Ura eta Garapenaren gaian Europako Batasuneko ekimenaren Multi-Stakeholder Forum-eko eta CONGDE-Espainiako GGKEen Koordinakundearen uraren taldearen partaide gara.

UNESCO Etxea UNESCO-EHUko Katedrak sortzearen aldeko sustatzaile aktiboa izan da, eta hala, Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko Katedra eta Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UNESCO Katedrak ezarri dira Euskal Herriko Unibertsitatean.

UNESCO Etxea Euskadiko GKEen Koordinakundearen kide da eta Mobilizazio eta Kanpainen Taldean parte hartzen dugu.

Giza Eskubideetan Hezitzeko eta Bakearen aldeko Elkartearen Foroaren sortzaile taldekoak gara, eta lehen Zuzendaritza-Batzordeko kideak gara.

IKUSPEGI - Immigrazioaren Euskal Behatokiarekin lan

hitzarmen bat dugu. Oso harreman estua dugu Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutuarekin eta Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Ikasketen Katedrarekin. Erromako Klubeko Atal Espainiarraren Euskal Taldearekin hainbat proiektutan lan egiten dugu.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuarekin lanean jarraitzen dugu; lankide eta kolaboratzaile gara hainbat ekimenetan.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Emakumearen estatusari buruzko Nazio Batuen Batzordean parte artesa ahalbidetu dugu.

Sortu berri den Innobasque, Berrikuntzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza Batzordean parte hartzen dugu, 'Berrikuntzaren Euskal Sistema Nazioartekotzea' Kontseiluaren baitan.

...isurpenak konpentsatzen dituen

Ekitaldi nagusien ospakizunetan eta liburuen argitarapenerako erabilitako paper kontsumoak eta banaketa lanak sortutako berotegi efektuko gasen isurpenak, aldaketa klimatikoaren aurkako Ekopass elkartearen bitartez konpentsatuko dira, Green Belt Movement erakundeak baso-berritze, garapen eta generoaren alorretan Kenyan garatzen dituen proiektuen bidez.



UNESCO ETXEO 15 BEKADUN ETA 4 KONTSULTORE MUNDUAN. 2007



- Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren NBEren Beka Programaren baitan.
- Giza Eskubideen Zuzendaritzari (Paris-UNESCO eta Geneva-OHCHR) eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari esker (Paris-UNESCO eta Zaragoza- NBE Uraren Hamarkadaren Bulegoa).

Lan-arloak

HIZKUNTZAK ETA
KULTURAK -
AMARAUNA

Hitzaldia:

'Pazifikoko Hizkuntza Aniztasuna'

Ezker-eskubi: Ane Ortega, Darrell Tryon, Itziar Idiazabal, Esti Izagirre, Esti Amorortu, Belen Uranga.

2007ko apirila. EHU, Leioa.

→ Amaraunak, hizkuntzen eta kulturen sailak, hizkuntza ondarea eta kultura-aniztasunaren sentsibilizazioa sustatzen du, bi alor horiek giza garapenean duten garrantzia hedatzeko asmoz.

Amerikako hizkuntza aniztasuna. Mexikotik Hego Konoraino idatzi eta argitaratu dugu. Argitalpen horrek kontinente hartako adituen eta Amaraunako batzorde teknikoaren artikulua biltzen ditu.

IKUSPEGIrekin lankidetzan, Hizkuntzak eta Immigrazioari buruzko ikerketa bat egin dugu, immigrazioaren ondorioz Euskal Herrian dauden hizkuntzak identifikatuz. Ikerketa horren emaitza 2008an argitaratuko da. Euskara, Immigrazioa eta Hizkuntza Eskubideak jardunaldia antolatu genuen, eta 50 adituk baino gehiagok parte hartu zuten.

UNESCOren Kultura Adierazpenen Aniztasuna Babestu eta Sustatzeko Hitzarmena indarrean jartzearekin bat, solasaldi hau antolatu genuen: 'Kultura-aniztasuna eta UNESCO: kultura gubxituak munduko aniztasunaren

baitan'. Hitzarmeneko testua aurkeztu genuen euskaraz, baita Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala eta Friburgoko Kultura Eskubideei buruzko adierazpena ere.

Aurrera jarraitzen dugu, Eusko Jaurlaritzaren babesa dugula, herritarrek Euskal Herriko hizkuntza ofizialei buruz dituzten pertzepzioak aztertzen dituen hainbat urtetako ikerketarekin. Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO-EHU Katedrarekin batera antolatutako Pazifikoko hizkuntza aniztasuna izeneko mintegian Darrell Tryon irakasleak hartu zuen parte. David Crystal irakasleak Zer egin hizkuntza gubxituek irau dezaten? hitzaldia eman zuen. Ekitaldi horretan irakaslearen Hizkuntzaren Iraultza lana aurkeztu genuen euskaraz.

Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena erusieraz argitaratu da, Kalmukiako Unibertsitatearekin elkarlanean.

Informazio gehiago: www.amarauna-languages.com eta www.unescoeh.org

GIZA
ESKUBIDEAK ETA
BAKE-KULTURA

Aurkezpena: 'El derecho a la memoria'.

Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseilua 4. Batzaraldia

Ezker-eskubi: Felipe Gómez, M^a del Carmen Marín, Mikel Mancisidor

2007ko martxo. Geneva, Suitza.

→ 2007an, Bakerako Giza Eskubidea zabaltzen egin dugu lan, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluaren baitan. Jarduera horri bultzada emango diogu, AEDIDH erakundearekin batera, Bakerako Giza Eskubidearen aldeko Munduko Kanpainan aktiboki eta zuzenean parte hartuz.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin elkarlanean jarraitu dugu, Zuzendaritza horren eta giza eskubideak babesteko eta sustatzeko lana egiten duten

nazioarteko erakunde garrantzitsuenen arteko harremanak ahalbidetzeko eta hobetzeko.

Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza Elkartearen Foroko zuzendaritza-batzordeko kide hautatu gaituzte, eta elkarte horiek indartzen eta elkarte horien etorkizuneko helburu eta jarduerak finkatzen egingo dugu lan.

UNESCO Etxearen lehentasunetako bat da gizakiak nazioartean ura edukitzeko eskubidearen alorrean laguntza eraginkorra ematea. Hori lortzeko, lan-lerro espezifiko bat sortu dugu aurrean, eta oinarritzat jotzen dugun eskubide horren sakontze teorikoa, babesa eta sustapena ditu helburu lerro horrek, batez ere nazioartean. Alor horretan, aliantza garrantzitsua ari gara lortzen 'Ura, bizitza-iturri 2005-2015' Nazio Batuen Hamarkadaren Bulegoarekin. Hala, zenbait gai Zaragozako EXPO 2008 erakustazokan aurkeztuko dira.

Informazio gehiago: www.unescoeh.org

**IRAUNKORTASUNA
ETA INGURUMENA**

Hitzaldia: 'Los límites del crecimiento, 30 años después. La transición hacia un desarrollo sostenible'. 2007ko martxoan Deustuko Unibertsitatea. Bilbao.

→ Iraunkortasun eta ingurumen-sailak euskal gizartearen eta munduaren arteko komunikazio- eta ekintza-lotunea izateko asmoa izan du. Lehen etapa ezagutza-unea izan zen; orain, ordea, parte-hartzea gero eta aktibagoa da, eta zenbait alorretan lan espezifikoak ari gara egiten, hala nola Uraren, Klima Aldaketaren eta Biodibertsitatearen alorretan.

URA-Uraren Euskal Agentziarekin elkarlanean, 'Ura, bizitza-iturri 2005-2015' Nazio Batuen Hamarkada ari gara sustatzen, aholkulari bat Zaragozako bulegoan egiten ari den lanari esker. URA agentziaren aginduan Milurteko Garapen

Helburuekiko lankidetzaren printzipioa jaso izanak orain arte egindako lana legitimatzen du. Era berean, UNESCOren WWAP Baliabide Hidrikoen Ebaluaketaren Programa Mundialarekin dugun aliantza indartzen lagundu digu, eta, horrez gain, baita EUWI Uraren Europako Ekimenean parte hartzen, Espainiako GGKE-en Koordinakundearen Uraren Taldean lan egiten (CONGDE), eta Zaragozako EXPO 2008 erakustazokari balioa ematen ere.

Etorkizunari begira Biodibertsitatearen eta Ingurumen-Hezkuntzaren alorrean egin dugun apustuak UNESCOko MaB programako aholkulari baten ekarpena izan du, eta, horren ondorioz, EHUren Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren harreman-eredua sistematizatu da. Izan ere, kudeaketari aplikatutako ikerketa-eredu hori munduan bakarra da.

Klima-aldaketaren aurkako borrokarekin bat egin du UNESCO Etxeak, eta behar gehien duten herrialdeentzat berotze globala zeinen mehatxu handia den adierazi dio euskal gizarteari; horrenbestez, 2007/2008 Giza Garapenari buruzko Txostenak eta CONGDE erakundearen Espainiako Klima Aldaketa eta Pobreziaren Taldearen filosofiak diotenarekin bat egin du (UNESCO Etxea talde horretako kidea da). Erakunde-mailako eredu izango gara, eta gure ekintzetan sortzen ditugun emisioak EKOPASS ekimenaren eta Green Belt Movement erakundearen bitartez konpentsatuko ditugu.

Informazio gehiago: www.unescoeh.org

**INFORMAZIO,
SENTSIBILIZAZIO
ETA DIFUSIO
ARLOA**

→ Gune honetan, euskal gizartea Nazio Batuen eta UNESCOren jarduera-esparru nagusietan sentibilizatu eta inplikatu nahi dugu. Batez ere, garapenerako nazioarteko lankidetzarekin harremandutako jarduera-esparruei ematen diegu garrantzia.

Bestalde, gure misioarekin bat etorritik, nazioarteko erakundeetan euskal gizartearen, eta batez ere gazteen, parte-hartzea areagotu eta agerrarazi nahi du.

Beste urte batzuetan bezalaxe, KOOPERA zentroak eta UNESCO Etxeko dokumentazio-zentroaren langaiak, batez ere, informazioa, dokumentazioa, prestakuntza-eskaintzak eta

NBEren beka-programa izan dira. Nazio Batuen sistemari eta UNESCO Etxeko proiektuei buruzko 2.000 kontsultatik gora erantzun dira; 257 prestakuntza-ordu eman dira, NBE-UNESCOko gaietako buruzkoak, hau da, giza eskubideen aldeko eta garapenerako nazioarteko lankidetzari buruzkoak; guztira, 120 ikasle izan ditugu.

EAEko GGKEetara, elkarreetara eta goi-mailako ikastetxeetara bisitaldiak egin ditugu. Horrela, 300 lagunek baino gehiagok gure jarduerak ezagutu dituzte, eta, era berean, lan-lerroak finkatu dira, lankidetzarekin zerikusia duten ikastaroei, bekei eta enpleguari buruzko informazioa trukatu ahal izateko.



2007ko Monumentuei buruzko Nazioarteko Argazki Lehiaketa
Euskal Herriak Euskal Artzaiari. Oñati.
Gipuzkoa
Jone Inza. Urrextu-Zumarraga Ikastola
(Urrextu)

KOOPERA zentroan, erakustaldi-aretoa den neurrian, 'Elikatzeko eskubidea. Urgentea' kanpainak bultzatutako Elikadurarako eskubidea izeneko erakusketa egin zen.

Beste zortzi lagun sartu dira NBEren beka-proiektuan, eta Asiako, Afrikako eta Amerikako zazpi herrialdeetako UNESCOren bulegoetan daude, egoitzatik kanpo. Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzarekin



Gatazkak aztertzeari buruzko II. lantegia.
2007ko urtarrila. Bernardo Garcia Izquierdok eman zuen ikastaroa.

hitzartutako lankidetzeta-programaren barruan Parisen dagoen UNESCOren Gazteria Zuzendaritzako bekari eutsi zaio.

Halaber, UNESCOrekin elkartutako nazioarteko ikastetxeen sarean EAEko bost ikastetxek parte hartzen dutela aipatu behar da. Eta ikastetxe horietako bik, hain zuzen, Kataluniako Generalitateak eta Europako Kontseiluak sustatutako Nazioarteko Monumentuen Argazkigintza Esperientzian hartu dute parte. Hiru ikasle saritu zituzten, haien inguruneko kultura-ondareari buruz egindako argazkiengatik, eta Estrasburgon egin zen ikasleen nazioarteko topaketa batean hartu zuten parte; han zeudela, Europako Kontseiluan ere izan ziren.

Bilboko Bakearen Aldeko III. Astearen erdian aktiboki hartu dugu parte; hain zuzen, bakeari buruzko hiru elkarriketa antolatu ditugu. Gainera, aurtendik aurrera, EAEko Giza Eskubideetarako eta Bakerako Hezkuntzako Elkartearen Foroko partaide izango gara.

Deustuko Unibertsitateko Aisiako Ikaskuntzen Institutuarekin Nazio Batuek eta Giza Garapena ikastaroa antolatu dugu, geure lan-taldeko kideek eman dutena, hain zuzen. Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioan parte hartu dugu, irakasleak kulturarteko hezkuntzan sentsibilizatzeko programa bat diseinatzen eta abian jartzen.

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari esker, Nazio Batuei eta UNESCOri buruzko koadernotxo didaktikoen bildumako zazpigarren alea argitaratu da, Hitz egin dezagun klimari buruz izenekoa.

Dokumentazioari dagokionez, 2.900 izenburu baino gehiagoko eta 80 aldizkako argitalpenetako fondoa kudeatu da; besteak beste, konferentzietan eta munduko goi-bilerei buruzko txosten tematikoak, ikus-entzunezko materiala, material didaktikoa eta Nazio Batuen sistemako dokumentazio ofiziala daude.

2007an 425 izenburu berri izan ditu, eta, horri esker, dokumentazio-zentroa EAEen erreferentzia-gunea da, Nazio Batuetako erakundeetan eta programen lan-esparruei buruzko bibliografia kontsultatu nahi bada.

Zerbitzuetan, besteak beste, mailegua, datu-base bibliografikoa on line kontsultatzeko aukera, eta UNESCOko datu-basea nahiz sumarioen eta berrikuntzen buletinak kontsultatzeko aukera daude.

Informazio gehiago: www.unescoeh.org

WEBGUNEAK

286.312 sarrera erregistratu dira; hau da, egunero 784,4 bisita batez beste. 978.741 web-orri ikusi dira.

→ 2007an webgunea hobetu da, eta lau zerbitzu berri eskaini dira:

- Berrien aldizkaria jarri da martxan, eta aldizkariaren bitartez (alde aurretik doako harpidetza egin ondoren), hiler Nazio Batuen eta UNESCO erakundeei buruzko informazio interesgarria bidaltzen dugu posta elektronikoz.
- Argitalpenen sailaren erreforma, edukien berrantolaketara eginez eta hainbat arlotara jotzeko estekak dituen hasiera-menua eskainiz. Horrela, Interneten ibiltzea eroso eta eraginkorra izango da.
- Webgunea egokitzea, gutxitasunen bat duten pertsonen edo adinekoen erabilera errazteko. Informazioa erabiltzaile guztien eskura dago orain,

informazio hori lortzeko erabiltzen den hardwarea edo softwarea bata edo bestea izan.

- Zuzendariaren bloga abian jartzea. Bertan, hainbat gai buruzko haren iritzi pertsonalak irakurri ahal izango dituzue. www.unescoeh.org/blog

Gure lanari buruzko informazio eguneratua eta Nazio Batuen sistemari buruzko berrikuntza eta ekintzen informazioa eskaintzeko ahalegin betean jarraitzen dugu; horrenbestez, 2007an arreta berezia jarri dugu alor horretan, eta argitaratutako berrien kopurua nabarmen handitu da (denera 145).

www.unescoeh.org

ARGITALPENAK

UNESCO Etxeak argitalpen-fondo handia du; gehiena doakoa da, eta gure webgunearen bitartez eskuratu dezakezu.

Era berean, UNESCOren argitalpenak ere lor daitezke bertan; izan ere, banatzaile eta salmenta-gune baimendua gara.

Hauek izan dira 2007eko argitalpenak:



JOLLY, Richard, EMMERIJ, Louis, WEISS, Thomas G. **El poder de las ideas. Claves para una historia intelectual de las Naciones Unidas**

Gaztelaniaz
Los libros de la catarata argitaletxeak argitaratua

Erosteke: www.catarata.org edo liburu-dendetan (15 €)



Zenbait Egile. **Garapen Iraunkorrari buruzko Urdaibaiko XII. Jardunaldiak. Gune babestuetako Ingurumen hezkuntzako II. Kongresua**

Euskaraz eta Gaztelaniaz
Erosteke: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusian



Comisión de Armas de Destrucción Masiva (WMDC). **Las armas del terror. Librando al mundo de las armas nucleares, biológicas y químicas**

ANUE-Nazio Batuetarako Erakundearekin batera argitaratua. Erosteke: UNESCO

Etxean (12€). Eskuragarri: www.unescoeh.org



PNUD. **Giza Garapenari buruzko Txostena 2007. Laburpena. Klima-aldaketari aurre egiten: gizakion arteko elkartasuna mundu zatitu honetan**

Euskaraz
Eskuragarri:
www.unescoeh.org y
www.undp.org



Zenbait Egile. **Amerikako hizkuntza aniztasuna. Mexikotik Hego Konoraino**

Euskaraz eta Gaztelaniaz
Ereinek argitaratua
Erosteke: www.erein.com edo liburu-dendetan (24 €)



CRYSTAL, David. **Hizkuntzaren iraultza**

Euskaraz
Ereinek argitaratua
Erosteke: www.erein.com edo liburu-dendetan (12 €)

EKITALDI GARRANTZITSUENAK ETA AURKEZPEN PUBLIKOAK



Peter Piot. Hitzaldia: 'Afrika eta HIESa: justizia erantzun gisa'.



Dennis Meadows. Hitzaldia: 'Los límites del crecimiento, 30 años después'.



Javier Madrazo, Hans Blix eta Mikel Mancisidor. Hitzaldia eta txostenaren aurkezpena: 'Izuaren armak'.



Darrell Tryon Itziar Idiazabalekin. Mintegia: Pazifikoko hizkuntza aniztasuna.

→ 2007an, hainbat instituziorekin elkarlanean, ekitaldi publiko asko antolatuta ditugu Euskadiko Autonomia Elkartearen. Ekitaldi horietan, aztertu diren gai guztietako aditu ezagun asko izan dira.

Aurkezpena: Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena.

Urtarrilaren 24a. Cervantes Institutua. Bordele.

Bakeari buruzko UNESCO Etxea elkarrizketak. 2007ko Bakearen aldeko astea 29-31 Urtarrilaren 29tik-31ra. Bilboko Udala.

Mahai-ingurua: 2006ko Giza Garapenari buruzko txostena.

Otsailaren 6a. Arrasateko Kultur etxea.

Peter Piot.

Hitzaldia: 'Afrika eta HIESa: justizia erantzun gisa'. Otsailaren 12a. Guggenheim Museoa. Bilbo.

Mahai-ingurua: Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen

Kontseiluaren lehen urratsak: hausnarketa kritikoa. Otsailaren 27a. Bizkaiko Batzar Nagusietako Hitzaldietarako aretoa. Bilbao.

Erakusketa: Monumentuei buruzko Nazioarteko Argazki

Lehiaketa.

Martxoaren 12tik-17ra. Yhon Jauregia. Bilbao.

Mintegia: Ura eta Lankidetzat: Euskal Herriak Milurtekoko

Garapen-Helburuetan eginiko ekarpena.

Martxoaren 22a. Hondarribia.

Dennis Meadows.

Hitzaldia: 'Los límites del crecimiento, 30 años después'. Martxoaren 26a. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao.

Hans Blix.

Aurkezpena: 'Izuaren armak. Mundua arma kimiko, biologiko eta nuklearrik gabe uzteko ahaleginak'. Apirilaren 12a. Bizkaia Jaurreko Abokatuen Bazkun Ohoretsua. Bilbao.

Darrell Tryon.

Mintegia: Pazifikoko hizkuntza aniztasuna. Apirilaren 26a. EHU. Leioa.

Eztabaida: Kultura-aniztasuna eta UNESCO: kultura gutxituak munduko aniztasunaren baitan.

Maiatzaren 8a. Bizkaia Jaurreko Abokatuen Bazkun Ohoretsua. Bilbao.

Kozo Hasezaki eta Sakue Shimohira.

Hitzaldia: Hiroshima eta Nagasaki: Suntsipen handiaren ondorengo bake kultura. Ekainaren 26a. Euskadiko Kutxako Aretoa Nagusia. Bilbo. Gernikako Bake Museoarekin lankidetzan.

Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordearen 2. Topaketa.

Bake Kulturari eta Giza Eskubideei buruzko Euskal Herriko Adierazpena. Irailaren 21a. Ercilla Hotela. Bilbao.

David Crystal.

Hitzaldia: Zer egin hizkuntza gutxituak bizirau dezaten?
Irailaren 24a. Bizkaia Jaurreko Abokatuen Bazkun Ohoretsua. Bilbao.

Erakusketa: Elikatzeko eskubidea.

'Elikatzeko Eskubidea, Premiakoa' Kanpainak sustatua.
Azaroaren 19tik 30ra. Kooperera Zentroa. Bilbao.

Liliana Carvajal.

Aurkezpena: Giza Garapenari buruzko 2007-2008ko txostena. Azaroaren 28a. Euskadiko Kutxako Areto Nagusia. Bilbao.

Lan Jardunaldia: Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubidea.

Azaroaren 29a. Nervion hotela. Bilbao.

Mahai-ingurua: Darfur, ahaztutako krisia.

Abenduaren 19a. Euskadiko Kutxako Areto Nagusia. Bilbao.
Amnistía Internacionalekin lankidetzan.

→ **Era berean, Nazio Batuen sistemako ondorengo ekitaldietan, gure lan-taldeak jarduerak antolatu eta aktiboki parte hartu du.**

Nazio Batuen erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluaren 4. Batzaraldia.

Pedro Arrupe Institutuarekin Ekitaldi paraleloa: 'El derecho a la memoria'.
Felipe Gómez Isa (Zuz.)
Geneva. Martxoaren 22a.

Nazio Batuen erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluaren 5. Batzaraldia.

Written Statement eta Ekitaldi paraleloa: 'Global campaign on the Human Right to Peace'.
Geneva. 6 y 11 Ekainaren 6a eta 11a.

Garapenari eta Gizarte Zibilari buruzko 2007ko foroa.

Geneva. Ekainaren 28tik 30ra.

Biltzarra: Munduko UNESCO Zentzoren, Kluben eta Elkartearen Federazioko (FMACU).

Atenas. Uztailaren 11tik 13ra.

Mundu mailako Uraren astea. Stockholm. Abuztuaren 12tik 18ra.**60. GKE / DPI Konferentzia.** New York. Irailaren 5etik 7ra.**UNESCOren 34. Konferentzia Nagusia.**

Paris. Urriaren 16tik azaroaren 3ra.

Latinoamerika eta Karibeko MaB Batzardeen Sarea eta Biosfera Erreserben (IberoMaB) XI. Bilera.

Valparaiso (Txile). Azaroaren 6tik 8ra.

WPHRE - Giza Eskubideen Hezkuntzarako Munduko Programari buruz Europako lehen Eskualde Bilera.

Estrasburgo. Azaroaren 5etik 6ra.



David Crystal AMARAUNA taldearekin. Hitzaldia: Zer egin hizkuntza gutxituak bizirau dezaten?



Kozo Hasezaki, Sakue Shimohira eta Iratxe Momoitio. Hitzaldia: Hiroshima eta Nagasaki: Suntsipen handiaren ondorengo bake kultura.



Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordeko Kideak. 2. Topaketa.







Igor Irigoien, Liliana Carvajal, Jon Emaldi eta Josu Sanz. Aurkezpena: Giza Garapenari buruzko 2007-2008ko txostena.

UNESCO Etxeak jarduera bakoitzari buruzko informazio argia eta zorrotza ematen dio gizarteari. Gure kontuak Gassó Auditores, SL-k ikuskatzen ditu urtero.

Bazkide edo erakunde laguntzaileen batek gure finantza egoerari buruzko datu gehiago jakin nahi izango balitu, kontuen ikuskaritzaren txostenak eskuratzeko aukera izango du.

→ Sarrera pribatuen eta publikoen jatorria

2007ko Sarrerak, Guztira	1.010.662,00
Ekarpen pribatuak	94.843,96
Bazkideak	7.534,00
Erakunde pribatuak	87.309,96
Ekarpen publikoak	915.818,04
Eusko Jaurlaritza	743.655,78
Bizkaiko Foru Aldundia	75.160,00
Udalak	68.625,87
Kanpo Arazoetako Ministerioa (KAM)	10.000,00
Beste sarrera batzuk (Ikastaroak eta liburuak)	18.376,39



→ **Gastua Programaz Programa**

2007KO GASTUAK, GUZTIRA	999.168,59
Sentsibilizazioa eta Formazioa	230.029,48
UNESCO Bekak	158.962,56
Giza Eskubide proiektuak	105.788,11
Ingurumen proiektuak	126.449,88
AMARAUNA Proiektua	139.879,74
Nazioarteko Harremanen programak	103.372,70
Kudeaketa orokorra	134.686,12

23% Sentsibilizazioa

13% Kudeaketa Orokorra


16% UNESCO Bekak

11% Giza Eskubideetarako Proiektuak

14% AMARAUNA Proiektua

10% Nazioarteko Harremanak

13% Ingurumeneko Proiektuak



→ **2007ko egoera-balantzea**

Aktiboa	2007	2006
B) Ibilgetua	10.449,68	14.983,07
II. Ibilgetu materialak	10.449,68	14.983,07
D) Aktibo zirkulatuak	990.801,75	939.503,86
Aktiboa guztira	1.001.251,43	954.486,93

Pasivo	2007	2006
A) Funtz propioak	123.715,40	112.221,996
E) Epe motzeko hartzekodunak	877.536,03	842.264,94
Pasiboa guztira	1.001.251,43	954.486,93

→ **Auditoriaren Txostena**



→ GURE ESKERRIK BEROENAK:

Etengabe babesten gaituzten bazkideei.

Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordeari (Federico Mayor Zaragoza, Jose Antonio Ardanza, Juanita Carro, Fèlix Martí, Txomin Bereziartua, Joaquin Achucarro eta Daniel Innerarity).

Amaraunako talde teknikoko kideei, irmotasun, zorrotasun eta gogo handia erakutsi dutelako. (Andoni Barreña, Itziar Idiazabal, Estibaliz Amorrortu eta Ane Ortega).

Hezkuntza alorreko aholkularitza taldeko kideei, beren lankidetzaz adoretuagatik (Neli Zaitegi, Nieves Fernández, Alejandro Campo, Luis Otano eta Begoña Ocio).

Beste proiektu batzuei ekiteko UNESCO Etxea utzi duten gure lagun Estibaliz Izagirre, Leire Garrastatxu, Alba Garcia, Marta Urrutxi, Izaskun Intxausti eta Asier Barrenari. Arrakasta opa diegu maila pertsonalean zein profesionalean.

José Miguel Martínez Urquijori, erakundearen zuzendaritzari emaniko laguntzagatik.

Eusko Jaurlaritza: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Kultura Saila. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Bizkaiko Foru Aldundia.

Bilboko Udala, Donostiako Udala eta Arrasateko Udala

UNESCOn MaB Programaren espainiar Batzordea - Ingurumen Ministerioa.

Kanpo Harremanetarako eta Nazioarteko Lankidetzarako Ministerioaren Giza Eskubideen Zuzendaritza.

→ ETA HONAKOEI ERE:

Kataluniako UNESCOCat-i, bere lankidetzagatik.

Miren Onaindiari eta Garapen Iraunkorra eta Ingurumen hezkuntzari buruzko EHUko UNESCO Katedraren baitan ari den taldeari.

Itziar Idiazabali, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO-EHU Katedrako Koordinatzaileari.

Eduardo J. Ruizi, Felipe Gómezi eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko talde guztiari.

UNESCOn lankidetzarako Espainiako Batzordeari, bere Presidente Luis I. Ramallori, Idazkari Orokor izandako Jose Antonio de Mesa oraingoari, eta Consuelo Vázquezi.

Carlos Villán jaunari eta David Fernández jaunari, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzendariaren Garapenerako eta Aplikaziorako Espainiako Elkarteak (AEDIDH).

Luis Las Heras jaunari, Los libros de la catarata argitaletxekoa.

Teresa Imízcoz andreari, Bordeleko Cervantes Institutuaren zuzendaria.

ADOZ - Deustuko Unibertsitateko Aisiazko Ikaskuntzen Institutuari.

Xabier Aierdi jaunari eta Ikluspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokiaren talde osoari.

CONGDE-Espainiako GKEEren Koordinakundearen Uraren eta Klima Aldaketaren taldeei.

Peter Piot jaunari, UNAIDS Programako Zuzendari Eragile

Carlos Fernández Jauregui jaunari, 'Ura, bizitza-iturri 2005-2015' Nazio Batuen Hamarkadaren bulegoaren Zuzendaria

Miguel Clusener-Godt jaunari, UNESCO MaB Programaren Idazkaritza Internazionalaren aditua.

Liliana Carvajal andreari, Garapenerako Nazio Batuen Programakoa (UNDP).

Dennis Meadows jaunari, idazlea eta zientzialaria, 'Los límites del crecimiento' ren egileetako bat.



Hans Blix jaunari, Suntsipen Handiko Armen Batzordeko burua (WMDC) eta Nazio Batuetako Elkarrean Munduko Federazioaren Presidentea (WFUNA)

Darrell Tryon jaunari eta David Crystal jaunari, hizkuntzalari, irakasle eta idazleak.

Kozo Hasezaki jaunari, Nagasakiko Bake Museoren Zuzendariordea, eta Sakue Shimohira andreari, Nagasakiko bonba atomikotik bizirik irten zena.

Nazio Batuen Erakundeko

Milurtekoko Garapen Helburuak Kanpainaren Eveline Herfkens andreari, Jordo Llopart jaunari eta Marina Navarro andreari, mundu, europar eta espainiar mailako koordinatzaileak. Agur bero bat Fernando Casadorentzat.

Silvia Escobar andreari, Giza Eskubide gaietako Enbaxadoreari misio berezian.

Josep Xercavins jaunari, UBUNTU Foroko Koordinatzailea.

Carlos Jiménez Renjifo jaunari, Nazio Batuen Europa Mendebalerako Informazio Eskualde-zentroko Espainia eta Andorarako ofiziala (RUNIC).

Mariluz López andreari, Amnistia Internacional Bilboko taldearen Koordinatzaile ordea.

Goiena komunikazio zerbitzuei

UNESCO Boluntarioak 2007 programako parte-hartzaile bekadunei beren lan bikainagatik: Arantzazu Acha, Elena Rodrigo, Isabel González, Jessica Domínguez, June Orenga, Leire Fernández, Marisol Cortés, Txaran Basterrechea

UNESCOn kontsultore moduan aritu direnei: Gerardo Zamora, Arrazakeria eta Bereizkeriarden aurkako Borrokaren sailan, Natalia Uribe, Giza Eskubideen sailan, eta Itziar Rodríguez, UNESCO MaB Programan. 'Ura, bizitza-iturri 2005-2015' Nazio Batuen Hamarkadaren bulegoan kontsultore izan den Fernando Díazi .

... Eta lan-arlo ezberdinetan bere laguntza eskaini diguten guztiei.